

Milena Baisch



ANTTON
ETA
PIRAÑA

desclée




ANTTON ETA PIPAÑA

Milena Baisch

Ilustrazioak: Elle Kusche

desclée



Istoriotxo bat kontatuko dizuet. Abentura-istorio bat denez, heroi bat dauka, ni neu, hain zuzen: Antton misteriotsua. Tximista-man deitzen zidaten garaian hasten da. Tori patata frijitu batzuk.

Krispetak ere badauzkat. Baina eserita eta adi egon behar duzue, ados?

Beno. Istorio hau autopistan hasten da. Bidean ginen. Bainu-jantzia soinean neraman jada. Aitona gidatzen ari zen, eta Amona irratitari koruak egiten.

—Azkarrago, Aitona! —esan nion. Autoan ziztuan joatea gustatzen zait. Beste autoak gu ikustean albo batera mugitzea mundiala litzatekeela pentsatu nuen. Baina Aitona 95 kilometro orduko abiaduran bakarrik joan zitekeen karabanaren erruz.



Karabana. Atzealdeko leihotik begiratu nuen eta hantxe ikusi nuen, gure atzean balantzaka mugitzen. Espazioko transbordadore bat zela eta basera bidean zihoan astronauta-talde bat ginela imajinatu nuen. Espazio-ontziko kapitaina ni nintzen, eta Aitona eta Amona Ilargira onik eramaten ari nintzen, berrogeita hamar mila kilometro orduko abiaduran.

—*Hegoak ebaki banizkio, neria izango zen. . .*—kantatu zuen Amonak. Garai zaharretako musika hark zorabiatu egiten ninduen. Keinu azkar batekin, hip-hop CD bat atera nuen eta Amonari eman nion. Gero, eserlekuan bermatu nintzen, eta leihotik kanpora begiratu nuen. Eskuineko leihotik, alegia, ezkerretik ikusten zen gauza bakarra gu baino azkarrago pasatzen ari zen auto mordoa baitzen.



Kanpina sekulakoa zen. Denetatik zegoen: bideojoko-makinak, pin-ponean jokatzeko mahaiak, kafetegi bat patata frijituak eta izozkia erosteko, eta diskoteka bat eta guzti zeukan. Autotik salto batez jaitsi nintzen, bainujantziarekin jantzita, gogoratuko duzuen bezala. Autoko eserlekuak marka mordoa utzi zidan bizkarrean, bainujantzia baino ez neramalako soinean.

—Azkena ipurdi gizona! —oihukatu nuen, eta korrika abiatu nintzen.

Baina berehala konturatu nintzen kanpina ez zela nik uste bezain mundiala, inguru osoa arakatu nuen arren ez nuelako igerilekurik topatu.

—Ziria sartu didazu, Aitona —esan nion, haserre hurbiltzen nintzaiola.

—Ez da egia —erantzun zidan. Karabana gure txokoraino eramán zuen eta autotik askatzen ari zen.

—Orduan, non demontre dago igerilekua?

Amonak barre egin zuen.

—Laku baten ondo-ondoan gaude —esan zidan, besoaz inguratzen ninduela. Gorroto dut Amonak hori egitea. Ez naiz haurtxo txiki bat! Amonaren besoa baztertu eta pauso batzuk aldendu nintzen haserre. Haserretzen naizeanean pauso aski sendoak ematen ditut, aizue, lurrikaratxoak eragiteko modukoak.

—Ez zarete benetan ariko! —hasi nintzen esaten lasai samar, baina gauzak ez ziren luzaroan lasai egoten Tximistaman tartean zenean—. Oporrak hemen igarotzea nahi duzue? *Hemen?* Benetan? Nola bururatu zaizue horrelakorik?

Amona eta Aitona zur eta lur geratu ziren. Ez zitzaien burutik pasa ere egin ume batek igerileku bat esperoko zuela. Batzuetan neure buruari galdetzen diot ez ote diren martetarrak-edo izango...

—Propio etorri gara hona lakua dagoelako —esan zidan Aitonak.



—Zertarako behar duzu igerilekua lakua pare-parean izanda? —galdetu zidan Amonak.

Hura bai galdera leloa.

Igerilekurik izan balitz, buruz egin ahalko nukeen salto uretara. Bonba-saltoak ere egin ahalko nituzkeen, edo urpean arnasari bi edo hiru minutuz eutsi. Neskei oinetatik heldu ahalko niekeen, edo agian haien bainu-jantziko kule-roi tira egin. Ziur hainbat umeri bizia salbatuko niekeela besoetako flotagailuetan zuloren bat izatean itotzen has-tean. Are gehiago, igerileku osoa punta batetik besteraino zeharkatuko nukeen urpean igeri eginez, umetxoren bat igerilekuaren hondotik salbatzeko. Tximista bezain azkar igoko nukeen gainazalera, eta bere guraso ikaratuei itzuliko niekeen. “Ume hau zuena dela uste dut”, esango niekeen. Eta eguzkitako betaurrekoak jantzi eta igerilekuaren ondoko hamaketan etzango nintzatekeen. Bai jauna, gauza mordo egingo nukeen, kanpinak igerilekurik izan balu.



Ez nuen hitz bakarria ere trukatu bi traidoreekin arratsalde osoan. Beren gauzak ateratzen eta karabanako armairuetan antolatzen aritu ziren. Ni, berriz, besaulkian eseri nintzen, akziozko pelikula bat ikustera.

Bukatu zenean, besaulkia ohe bihurtu nuen, eta lo egi-teko etzan nintzen, hantxe, toki kirastu hartan, ezerezaren

erdian. Ez nuen etxearen falta sentitzen, kontua ez zen hori, baina inurrien jokoak etorri zitzaidan gogora. Hau da, Amak gorputz osoan inurriak banitu bezala kilimak egiten dizkidanean, eta gero Aitak airean altxatzen eta inurri guztiak zanpatzen dituen itxurak egiten dituenean. Beti geratzen naiz lo seko inurrien jokoaren ostean.

Baina une hartan ez zegoen inurrien jokorik niretzat. Bakar-bakarrik nengoen. Oporretan. Igerilekurik gabeko zulo batean, arratoiek ere bisitatu nahiko ez luketen leku batean.





Biharamunean, sabelean zerbait iltzatzen zitzaidala nabaritu nuen eta esnatu egin nintzen: kanabera gogaikarri bat zen.

Buelta eman nuen, baina buiatxo zantar batek sudurrean jo ninduen. Lo-plantak egin nituen, eta izaten ari nintzen amets zoragarrira itzultzen saiatu nintzen.

Basamortuaren erdian misio batean nengoela ari nintzen amesten.

Borroka-hegazkin bat pilotatzen ari nintzen, eta lehoiek inguratu zuten herri bat salbatzea zen nire zeregina. Neska panpox bat piztia haietako baten atzaparretatik askatzeaz nengoela...

—Non sartu dira nire harrak? —esan zuen Aitonak marmarka. Bere artean hitz egiten ari omen zen, baina argi eta garbi entzun nion. Begiak zabaldu nituen.

—Zer esan duzu? Harrak?

Aitona nigana biratu zen. Eskuan zeuzkan kanaberak aurpegitik pasatu zizkidan.

—Hara, egun on, Antton —esan zidan. Eta berehala itzuli zen ohe gisa erabiltzen ari nintzen besaulkiaren azpiko tiraderak arakatzera. Mahaira igo nintzen—. Ontzi biribil batean zeuden... —esan zuen marmarka.

Amona kanpotik deika hasi zen.

—Gosaltzera etorriko zara?

Karabanaren leihotik begiratzean, nire txokolatezko zerealik gogokenak mahaiari ikusi nituen.

Harrez jositako karabana haren lurzorua zapaltzeko batere gogorik ez neukanez, eskuak gorantz luzatu nituen, karabanaren sabaiko leihoari heltzeko. Orduan, mahaiari beherantz bultza egin nion oinekin, eta sabaitik zintzilik geratu nintzen. Dilin-dalan hasi nintzen, aurrera eta atzera balantzaka, eta hankak aterantz zuzenduz, sabaiko leihoa askatu nuen.

Hozkailuak dar-dar egin zuen haren kontra hartu nuen kolpearekin. Zalaparta itzela entzun zen. Eta behatz txikian min ikaragarria hartu nuen, hozkailuaren izkinaren kontra zanpatu nuelako. Baina ez nuen negarrik egin.



Gosaldu eta gero, Aitona bere arrantza-aparailuarekin saltseatzen hasi zen berriro. Harrak lehentxeago aurkitu zituen, eta arrantza egiteko poltsan sartu zituen. Amonak bainu-jantzia jantzi zuen. Bazirudien lakura joateko asmoa zutela. Nigmatik primeran. Zaharrei gauza batzuk gustatzen zaizkie eta umeei beste batzuk. Bakoitza bere kontuetara. Besaulkia ohe posizioan utziko nuen puska batean. Telebista ikusi nahi nuen, eta agian txokolatego zereal gehiago jan. Oso-osoz gozo zeuden.

Eroso jarri nintzen, eta zapping pixka bat egiten hasi nintzenean, norbaitek leihoan kolpetxo batzuk jo zituen. Amona zen, eguzkitako txapela zeraman buruan.

—Ondo pasa! —esan nion eskuaz alaiki agurtuz.

—Tira, Antton! —esan zidan, leihoan kolpe sendoxea-goak joz.

Orduan hasi ziren komeriak.

Lakura joan behar izan nuen haiekin. Behartu egin ninduten.

—Ezin nauzue ezer egitera behartu —esan nien—. Pertsona askea naiz.

Baina pipertu egin ziren, artean pijama neramalako soinean.

Nik ez nuen arazorik ikusten.

Karabanan utz nintzaketen. Pijaman geratzen utzi ahal zidaten. Bake santuan eta lasai gera zitezkeen. Baina, ez.

Beraz, haiekin batera joan nintzen. Gogorik gabe ibiliz zeharkatu nuen zelaia bi zaharren atzetik. Batak txapela zuen buruan, eta euritako batekin zihoan. Eta besteak, arrantza-tresnak aldean zeramatzala, kanpineko lagun bat baino gehiago jo zuen buruan kanaberarekin, konturatu ere egin gabe. Baina nik ez nuen tutik esan. Ez nuen tutik esan bide osoan, artean muturtuta nengoelako. Ezinezkoa da muturtuta egotea eta aldi berean hitz egitea.

Lakua zelaiaren bestaldean zegoen, behintzat.

Bainatzeko eremu bat zegoen, hondarrarekin, eta egurrezko kai bat. Umeez korrika zeharkatzen zuten kaia, bonba-saltoak egiteko. Aitona eta Amona puska batean ibili ziren uraren bazterretik, gustatu zitzaien txoko bat aurkitu zuten arte, lakuaren ondo-ondoan, eta orduan gauza guztiak atera zituzten.

Ni zuhaitz batzuen ondoan geratu nintzen, ur bazterretik metro batzuetara. Amona ortozik joan zen uretarantz. Besoak funanbulista bat balitz bezala mugitzen zituen, zorua oso-oso bero zegoelako eta oinak erretzen zizkiolako.

Uretara iritsi zenean, oin bat sartu zuen.

Oilo-ipurdia jarri zitzaidan.

—Hara, oso ona dago! —esan zuen ozenki—. Antton, etorri! Goazen igeri egitera!



Nigana biratu zen eta besoaz keinuak egin zizkidan.
Baina nik ez nuen zirkinik ere egin.

Ez dakit esan dudan, baina GORROTO DITUT
lakuak.



Hura nazka! Urrutitik ikusten nituen: urpeko landare eta gauza higuigarri guztiak. Beno, egia esateko, ez nituen bene-benetan ikusten, lakuaren ertzetik hamar bat metro-ra nengoen eta. Ezinezkoa da laku baten barruan dagoena horren urrutitik ikustea. Baina gainazala bai, ondo baino hobeto ikusten nuen, eta niretzat nahikoa zen. Uraren gainazala zera zen... beltza. Hura nazka!

Hotzikarak eragiten zizkidan. Zergatik da beltza lakuetako ura? Eta zergatik da hain kolore urdin politekoa igerilekuetako ura? Ulertzen duzue zer esan nahi dudan, ezta?

Horren beltza izateko, laku hark ezin zuen ur askorik izan. Landare eta gauza nazkagarri asko eta ur gutxi, ziur.

Arrain lirdingatsuak ziztu bizian batera eta bestera mugitzen, jendearen hankak laztanduz. Muskuiluak oskolak



zabaltzen eta ixten, jendeari atximur egiten. Barraskiloak mukia askatzen. Eta arrainak ere auskalo zer jariatzen. Uretan egiten dute txiza, aizue, eta auskalo zer gehiago askatzen duten...

Eta hori marmokak ez aipatzearren!

Baina urpeko landareak dira txarrena. Azpi-azpitik ateratzen dira, lakuen hondo-hondotik. Lakuetan, beheko aldea goikoa baino are ilunagoa da, eta ura izotza baino hotzago dago. Gainera, landare horiek gorantz hazten dira, eta zenbat eta gehiago hazi, orduan eta lirdingatsuago bihurtzen dira. Eta jendeak, uraren gainazala igerian zeharkatzen duenean, sabelarekin eta hankekin ukitzen ditu.

Etsairik izango banu, laku batera jaurtiko nuke.

Ez egin barrerik! Hau kontu serioa da. Ez zenuten lakua ikusi. Zorionekoak zuek! Ez badiozue barre egiteari uzten, ez dut istorioa kontatzen jarraituko.

Horrela hobeto. Eta orain, entzun adi, ados?

Amona uretan zegoen. Bizkarrez igeri egin zuen puska batean, eta gero aurrerantz.

—Antton! Kaixoooo! —deitu zidan, baina ez nion begiratu.

Eguzkitako betaurrekoak jantzi nituen. Ez zen beharrezkoa inork jakitea zenbat aztoratzen ninduen Amona igeri egiten ikusteak.

Aitona niri begira jarri zen.